

**PLE 10-SEPT-26 (3/CP) AURREKONTU-ALDAKETAK, IRUÑEKO UDALEAN
INDARREAN DEN AURREKONTUKO AURREKONTU-
APLIKAZIO BATEAN EGINDAKO KREDITU-BAJAREN BIDEZ
ETA HAUR ESKOLETAKO GASTU OROKORRETARAKO
DIRUZAINTZAKO GELDIKINEN BIDEZ FINANTZATUAK.**

PLE 10-SEPT-26 (3/CP)

«IKUSIRIK espedientean jasota dauden dokumentu guztiak eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat, eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Honako aparteko kreditu-gehigarri hau onestea Iruñeko Udalaren 2026ko aurrekontuan, aurrekontuan ez baitago kreditu egokirik eta nahikorik horretarako:

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kontzeptua	Zenbatekoa
40/15332/609000	HIRI-ALTZARIAK – ERABILERA PUBLIKOKO AZPIEGITURAK ETA ONDASUNAK	Gipuzkoa etorbideko haur-parkea berritzea	100.000,00

Aurreko aldaketa finantzatu da Udalaren Gastu-aurrekontuaren honako aplikazio hau deuseztatzeak eragindako baja baten bidez:

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kontzeptua	Zenbatekoa
20/92920/510000	BESTE USTEKABE BATZUK – USTEKABEKO GASTUAK	Ustekabeko gastuetarako zuzkidura	-100.000,00

2.- Honako kreditu gehigarri hauek onestea **Haur Eskolen** 2026ko aurrekontuan, 2026ko aurrekontuan kreditu egokirik eta nahikorik ez duten aparteko gastuei aurre egiteko, erakunde autonomoaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinen bidez finantzatuak (Haur Eskolen aurrekontuaren diru-sarreraren 71/87000 aurrekontu-aplikazioa), orotara 395.000,00 euroekin, honako xehetasun hauekin bat:

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kontzeptua	Zenbatekoa
71/32310/622000	HAUR-ESKOLAK - IKASTETXEAK	Mendillorriko haur- eskolaren estalkia egokitzea	335.000,00
71/32310/625000	HAUR-ESKOLAK - ALTZARIAK ETA BULEGOKO EKIP.	Makinak ordezteko inbertsioak	60.000,00
		OROTARA	395.000,00

3.- Erabaki honetako 1. eta 2. apartatuetan onetsitako aldaketetarako, aurrekontuko aplikazio-mailarekiko lotura kualitatiboa batera ezartzen da aplikazio berean kontzeptu bat baino gehiago sartuz gero. Aurretik aparteko beste kreditu batzuk edo kreditu gehigarriak onartuak dituzten aurrekontu-aplikazioen kasuan, aurrekontuko aplikazio-mailarekiko lotura kualitatiboa batera ezartzen da aldaketa horietan onartutako kontzeptuak ere barne hartuta. Salbuetsita daude finantzaketa ukituta duten gastu-proiektuei dagozkien aldaketak, zeinetan lotura kualitatiboa mota horretako gastuetarako exekuzio-oinarrietan ezarritakoa izanen baita.

4.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie aurrekontua betearazteko indarreko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.

5.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki hau Iruñeko Udalaren iragarki-taulan jendaurrean paratzea hamabost egun naturaleko epean. Hasiera batean onetsitako aldaketa baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztuz gero, Osoko Bilkurak berariaz behin betiko onetsi beharko ditu horiek indarra har dezaten, baina behin betiko berariazko onespén hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten puntuek indarra har dezaten.»